



Arartekoaren 2015R-162-15 Ebazpena, 2015eko ekainaren 16koa. Horren bidez, Lanbideri gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea berriro aintzat har dezan.

Aurrekariak

2015eko urtarrilaren 19an XXX jaunak aurkeztu zuen kexa bat izapidetzeko onartu zen. Kexaren arrazoa Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten zituela izan zen.

Kexagileak esan zigunaren arabera, Lanbideri herrialdetik aterako zela jakinarazi zion 2014ko uztailaren 31tik irailaren 3ra. Kexagileak irailaren 4an itzuli zela jakinarazi zuen. Lanbideren abenduaren 20ko ebazpenaren bidez prestazioak etetea ebatzi zen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra den aldetik dituen betebeharrak ez konplitzeagatik.

Antza, kexagilea itzultzerakoan egun bat atzeratu izanari lotuta dago, Euskal Autonomia Erkidegotik (EAE) aterako zela helarazi bazuen ere.

Kexagilea irailaren 4an iristeko arrazoiak: hanka bat apurtu zuen eta bere herrialdeko zerbitzu medikoek emandako berehalako arreta eta lesioaren larritasuna ikusirik itzultzeko zituen arazoak.

2015eko urtarrilaren 14an berraztertze aukerako errekurtsioa bideratu zuen (bertan jazotakoa azaldu zuen eta Lanbidek hartutako erabakiarekin ados ez zegoela adierazi zuen).

Berriazko ebazpenik ez egotean sortutako zalantza ikusirik, kexagileak Arartekora jo zuen kexa bat sustatzeko asmoz.

2015eko urtarrilaren 29an, Arartekoak Lanbideri espediente honen inguruko informazioa eskatu zion. Zehazki, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarriaren eskubidea eteteke udal organismo autonomo horrek aplikatu duen irizpidearekin ados ez geundela adieraziz zenbait gogoeta helarazi zizkioten.



Erantzunik jaso ez genuenez eta Arartekoak emandako epea igaro zenez, 2015eko martxoaren 9an errekerimendu bat egin genuen, aipatutako epean eskaerari erantzuteko betebeharra gogorarazte aldera.

Apirilaren 17an erakunde honetan Lanbideren idazki bat jaso genuen. Bertan, Lanbidek 2014ko abenduan onartutako irizpideak baino ez ziren aipatu eta berraztertze aukerako errekurtsioari emandako erantzuna erantsi zen.

Hala, bere erantzun-idazkian, Lanbidek hauxe esan zuen:

- *“Visto el expediente de la persona interesada, se ha comprobado que la resolución de suspensión está bien tramitada porque se ha seguido los criterios internos de Lanbide de diciembre de 2014.”*

Hortaz, beharrezko egitate- eta zuzenbide-elementuak dauzkagula uste dugunez, honako gogoetak egin ditugu:

Gogoetak

1. Kexagileak aurkeztutako agiriak ikusirik, behar bezala egiaztatuta geratu da kexagilea EAetik atera zela eta bidaia 2014ko uztailaren 31tik irailaren 3ra aurreikusita zegoela.

Lanbidek aipatu baina eztabaidatu ez dituen inguruabarren arabera, kexagileak hanka apurtu zuen EAetik kanpo zegoenean eta bere jatorrizko herrialdeko traumatologia zerbitzura joan behar izan zuen behar zituen zainketak jasotzeko. Azkenik, hanka inmmobilizatu zioten igeltsu batekin. Lanbideri emandako agirien artean lesioaren larritasuna jaso eta egiaztatzen duten txosten medikoak daude.

Horrez gain, kexagileak argudiatu du jasandako lesio baten ondorioz eta itzultzeko hegazkin txartel bat ezin lortu izanaren ondorioz, EAera egun bat beranduago iritsi zela.

2. Azaldutakoa gorabehera, abenduaren 20an Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea aldi baterako etetea ebatzi zuen, Lanbideren ustez, kasu honetan prestazioon titularrak ez baitzituen prestazio horiek jasotzeko bete behar dituen baldintzak konplitzen.





Ebazpen hori noiz eman den ikusirik, ez dakigu data horretarako Lanbidek eskubidea berrabiarazi duen.

3. 2014ko abenduko irizpideen hitzez hitzeko ebakeran oinarritu du Lanbidek bere jarduera. Zehazki, hauxe helarazi digute:

- *“Si la persona perceptora no avisa a Lanbide la salida o excede de los días que había señalado en su comunicación, se seguirá actuando como hasta ahora: suspendiendo un mes de la prestación y no reanudando hasta que el interesado lo solicite expresamente.”¹*

4. Hizpide dugun kasuan behar bezala egiaztatu da kexagileak EAetik aterako zela jakinarazi zuela eta bidaiari istripu bat pairatu zuela eta, itzuli bezain laster, iritsi zela jakinarazi zuela.

Beraz, azaldutakotik esan daiteke kexagileak eskatutako eginbidez jardun zuela, alegia, azaroaren 24ko 2/2011 Legearen bidez aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezarritako betebeharrak eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua² betez.

Hori horrela bada ere, esan den moduan, Lanbidek eskubidea eten zuen eta oraindik ez dakigu prestazio horiek berrabiarazi dituen.

Proporzionaltasun printzipioak kontuan hartuta eta eskubidea onartua duten pertsonen egoera larria ikusirik, Lanbidek kasu honetan aplikatu duen *“sine die”* etetea gehiegizkoa da; eta Lanbidek emandako zenbait ebazpenetan eteteak zenbat iraungo duen ez zehazteak prestazio hauen titular eta onuradunei segurtasun-gabezia juridikoa dakarkie.

Halaber, kasu honetan egiaztatu da kexagilea urtarrilaren 15ean joan zela Txagorritxuko Lanbideren bulegora, berraztertzeke aukerako errekurtsua jarri eta egun bat geroago, eta agiriak aurkeztu zituela. Hortaz, ondoriozta daiteke agiriak aurkezteko arrazoia Lanbideri berriro ere diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren sortzapena berriro eskatzea zela.

¹ 2014ko abenduko irizpideak. 59 irizpidea. 40. orrialdea

² Aurreratzean: 147/2010 Dekretua.



2014ko abenduko irizpideen idazkian Lanbidek honako hau dio: *“si el periodo de ausencia se debe a alguna de las causas señaladas en el artículo 41.3 del Decreto, debidamente acreditado, y la duración es inferior a 12 meses, se podrá reanudar sin analizar de nuevo el requisito de residencia efectiva.”*

Hala, komeni da gogora ekartzea, aipatutako arrazoen artean, aldi baterako premiari lotutakoa dagoela.

5. Etetearen iraupenari dagokionez, Lanbidek azaldutako irizpideetan aipatzen den hilabetea ez bezala, 147/2010 Dekretuko 45. artikulua honako hau xedatzen du:

- *“Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziek irauten duten bitartean jarraituko du eteteak”*

Aipatu manuak honakoa esanez jarraitzen du:

- *“ez da inola ere ez-betetzearen kausa den iraupena baino handiagoa izango”.*

Kasu honetan, behin-behineko ez-betetzearen iraupena egun batekoa izan zen³. Hala, 147/2010 Dekretuko 46. artikularekin bat etorriz:

- *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta etetea eragin zuten arrazoiak desagertutakoan, foru aldundiak⁴, **ofizioz edo alderdi batek eskatuta, egiaztatu egingo du une horretan prestazioa ordaintzeko baldintzak gertatzen ote diren eta, hala badagokio, prestazioaren zenbatekoa ezarri. Horretarako, dekretu honetako 53., 54. eta 55. artikuluetan aurreikusitako prozedura-arauak aplikatuko dira”.***

Azkenik, 147/2010 Dekretuko 47. artikulua berariaz hauxe dio:

³ 2014ko irailaren 4a.

⁴ Azaroaren 24ko 4/2011 Legea oinarri hartuta, Lanbide ulertu behar da.



- *"Etendura baten ondoren prestazioa eskuratzeko eskubideak jarraitzen badu, prestazioa etetea eragin zuten arrazoiak amaitu eta hurrengo egunetik hasiko da ostera sortzapena".*

Lanbidek irailaren 4an izan zuen kexagilearen itzuleraren berri, alegia, behin-behineko ez-betetzearen berri izan zuen ez-betetze horren arrazoiak jada jazo zirenean. Horrez gain, kexagileak bere atzerapena behar bezala justifikatu zuen kasuan kasuko txosten medikoak aurkeztuz.

Horregatik, gure ustez, aipatutako artikuluei jarraiki, etetearen iraupena eta behin-behineko ez-betetzearen iraupena proportzionalak izan behar ziren, hala, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren zenbatekoen sortzapena ofizioz berrabiaraz zezakeen, titularraren berrabiarazpen eskaerarik bideratu behar gabe, are gehiago kexagilea zenbait alditan bere espedientearen egoeraren berri izateko Lanbideko bulegoetara joan zela egiaztatuta dagoenean.

6. Horrez gainera, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. zk.ko Epaitegiaren martxoaren 4ko 44/2015 Epaia arabera, EAetik ateratzea ez jakinarazteak ez dakar betebeharririk ez betetzea.

Zehazki, epaian aztertutako egoeran, Lanbidek ez berritzea xedatu zuen, Lanbideri bere bidaiaren berri eman ez ziola argudiatuz, *"como es obligación de todos los perceptores de la RGI, según el artículo 12 del Decreto 147/2010, de 25 de mayo."*

Hori horrela, Lanbidek esandakoa gorabehera, epai hori hauxe esanez amaitzen da:

- *"se estima que no estamos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12 citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular."*

7. Azkenik, erakunde honek ezin izan du egintza administratiboak arrazoitzekeo premiaren inguruan duen iritzirik eman hainbat alditan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. artikuluan jasotakoa betez.





Zehatz-mehatz, alderdi hori jada aztertu zen urtarrilaren 20ko 1/2014 Gomendio Orokorrean⁵. Hain zuzen ere, gomendioa amaitu zen aipatuz eskubideak mugatzen dituzten ebazpenek hizpide duten neurria berariaz oinarritzen duten legeko manua edo manuak barne hartu behar dituztela eta, gertakariei dagokienez, estandarizatutako erreferentziak saihestu behar direla.

Kasu honetan diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eteten duen ebazpenak ez du manurik barne hartu.

Ondorioz, kexagileak prestazioaren onuradun izateko baldintzak eta betebeharrak konplitzen zituen. Marokora joan zen bertan hilabete baino zertxobait gehiago egoteko eta bidaia hori egingo zuela eta iraupenaren berri eman zituen. Azkenean, jasan zuen lesioagatik aurreikusitako data baino egun bat beranduago itzuli zen.

Azaldutako guztiagatik, erakunde honek uste du kexagileak ez zuela prestazioak eteteko ekintzarik burutu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Kasu honetako berriazko inguruabarrak eta proportzionaltasun printzipioak kontuan hartuta, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren etetea berriro aintzat har dezazun, erakunde honek ez baitu antzeman kexagileak etete hori eragiteko ekintzarik burutu duenik eta, hala, etete aldiari lotutako zenbatekoak itzul diezazkiozuen.

⁵ http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_3269_3.pdf